

PAUL AUSTER

Paul Benjamin Auster (Newark, New Jersey, 1947ko otsailaren 3an.

Eleberrigile estatubatuar ezaguna da, batez ere *The New York Trilogy* liburuengatik (*City of Glass*, *Ghosts* eta *The Locked Room*). Poesiak, itzulpenak, antzezlanak eta pelikulak ere egin izan ditu.

Jaiolekua bestelako izan arren, Auster New Yorkeko zat hartzen dute kritikari gehienek, Brooklynen hainbat urtez bizi izateagatik.

Euskaratuta sei liburu ditugu orain arte: "Brooklingo erokeriak", "Kristalezko hiria", "Bidaia scriptoriumean zehar", "Gizona ilunpean", "Ikusezin" eta "Sunset Park".

Biografia

Columbiako Unibertsitatean ikasi zuen eta urtebetez petrolio-ontzi batean lan egin ondoren, Frantzia eman zituen beste lau urte. 1974an New Yorkera itzuli zen.

New York Review of Books-en eta *Harper's Saturday Review*-en poesia eta saiakera idatziz hasi zuen bere karrera literaturan.

1987an oso kritika onak izan zituen *New Yorkeko trilogia* ipuin liburuagatik.

Gero nobela idazten hasi zen: *Azken gauzen herrialdea* (1988), *Ilargiko jauregia* (1989) eta *Halabeharraren musika* (1991), esate baterako; azken hori Philip Haasek zinemara eraman zuen 1993an.

Berriagoak dira *Leviatan* (1992) eta *Bertigo* (1994).

1994an bere kontakizunetan oinarritutako *Smoke* eta horren jarraipena den *Blue in the face* filmen gidoiak idatzi zituen, eta aski arrakasta handia izan zuten zinemaren.

1998an bere bizikizunak jasotzen dituen oroitzapen liburu bat argitaratu zuen, *Nola edo hala*; urte berean bere lehen filma zuzendu zuen, *Lulu on the bridge*, Harvey Keitel eta Mira Sorvino protagonista zirena. Film horretan bere literaturaren betiko gaiak agertu zituen: halabeharra, maitasunaren botere salbatzailea, literaturaren mitoa eta egungo bizimoduaren bakardadea.

Bibliografia

Eleberriak

- *The New York Trilogy* (1987)
 - *City of Glass* (1985)
 - *Ghosts* (1986)
 - *The Locked Room* (1986)
- *In the Country of Last Things* (1987)
- *Moon Palace* (1989)
- *The Music of Chance* (1990)
- *Leviathan* (1992)
- *Auggie Wren's Christmas Story* (1992)
- *Mr. Vertigo* (1994)

- *Timbuktu* (1999)
- *The Book of Illusions* (2002)
- *Oracle Night* (2004)
- *The Brooklyn Follies* (2005)
- *Travels in the Scriptorium* (2006)
- *Man in the dark* (2008)
- *Invisible* (2009) ^[1]
- *Sunset Park* (2010)



Poesiak

Paul Auster 2007an.

- *Disappearances: Selected Poems* (1988)
- *Ground Work* (1990)
- *Selected Poems* (1998)
- *Collected Poems* (2004)

Euskaraz

- "Brooklingo erokeriak" (Oskar Aranak itzulita, Alberdania, 2006).
- "Kristalezko hiria" (Harkaitz Canok itzulita, Txalaparta, 2006).
- "Bidaiak scriptoriumean zehar", (Oskar Aranak itzulita, Alberdania, 2007).
- "Gizona ilunpean", (Oskar Aranak itzulita, Alberdania, 2008).
- "Ikusezin", (Oskar Aranak itzulita, Alberdania, 2009).
- "Sunset Park", (Itzultzailea: Oskar Arana. Alberdania, 2010).

Filmografia

- *Smoke* (1995)
- *Blue in the Face* (1995)
- *Lulu on the Bridge* (1998)
- *The Inner Life of Martin Frost* (2006)

SUNSET PARK

BERRIA

Paul Austerren 'Sunset Park', euskaraz

Oskar Aranak itzuli du idazle estatubatuarraren azken eleberria, eta Alberdaniak argitaratu.

2010-11-23 / [Berria](#)

P

Auster idazlearen (New Jersey, AEB, 1947) azken eleberri, Sunset

Park, euskaraz irakurtzeko aukera ere badago gaurtik aurrera. Oskar Aranak itzuli du, eta Alberdania argitaletxeak kaleratu. New Yorkeko auzo txiro bateko etxe okupatu batean kokatu du narrazioa Austerrek. Etxe hartan bizi diren lau gazteak dira eleberriaren protagonistak, eta bakoitzak bizi duen "tragedia dositxo" eta aurrera egiteko duten nahia azalduz eraiki du istorioa. Austerren bost nobela itzuli ditu dagoeneko Aranak. 2006an euskaratu zuen aurrena: *Brooklyngo erokeriak*, besteak beste. Harrezkero, ingeleseko jatorrizkoarekin batera euskaraz argitaratu dira idazlearen eleberriak.

Sunset Park

Paul Auster

Colección: [Narrazioa](#)

Traductor: [Oskar Arana](#)

Primera edición: 2010

"Bata edo bestea izan behar zuen, maitasuna edo maitasunik eza, baina maitasuna eta ez-maitasuna aldi berean ez. Pausatu egin zen une batez bere pentsamendu horien gainean hausnartzeko, eta, gero berari garrantzitsua iruditzen zitzion galdera bakarra egin zuen, bidezkoa zen galdera bakarra.

Horrenbestearinokoa bazen elkar ez atsegin izate hori, zergatik egin zuten ume bat?"

Sunset Park, New Yorkeko auzo pobre baten izena da. Badago han, Green-Woods hilerriaren ondoan, etxe bitxi bat, etxe bakarra, AEBetako mendebaldeko larre eta ordokietatik hartu eta New Yorken txertatua ematen duena, zurezkoa. Lau squatter gazte bizi dira bertan. Bizitzan eta gizartean bidea ireki nahian ari dira gazteak.

Azken depresio ekonomiko honen pean New Yorkeko gazte batzuek bizitzan aurrera egiteko egiten duten ahalegina kontatzen du eleberriak. Maitasun debekatuak, zorigaitzoak, belaunaldien arteko etenak, krisi sozial nahiz pertsonaletan aurrera egiteko baliabideak, New York... eta Austerren eleberrietan ohikoak izaten diren hainbat osagai ditu kontakizunak. Kontakizunaren egitura bera ere jostagai izan du idazleak.

Itzal-argiak ditu kontakizunak, ez da dena iluntasuna, ez da dena argitasuna. Maitasunaren indarra eta beharra antzematen da gertaeren eta pertsonaien hautu eta ibileren azpitik.

CULTURA

'Sunset Park' eleberrian, «erabat Auster» izaten jarraitzen du Paul Austerrek

New Yorkeko auzo txiro batean kokatu ditu oraingoan pertsonaiak, denak ere arazo faltan ez dabilzan gazteak

24.11.10 - 03:31 -

NEREA AZURMENDI | DONOSTIA.

Orain pare bat hamarkada goia jo ondoren behin eta berriro nobela bera idazten aritzea leporatzen diote gaizki-esaleek Paul Auster (New Jersey, 1947) idazle estatubatuarri. Horixe estimatzen diote hain zuzen miresleek. 'Sunset Park' Austerren hamaseigarren nobelak bi taldeen aurreikuspenak beteko ditu. 2006.ean 'Brooklyngo erokeriak'-ekin estreinatu zenez geroztik -hura izan zen alegia Alberdaniak euskaraz gaztelaniazkoarekin batera ekarri zuen aurreneko 'austerra'- 'New Yorkeko trilogia'-ren egilearen beste lau liburu euskaratu ditu Oskar Aranak. Atzo, bosgarren itzulpena aurkeztean, 'Sunset Park' honetan «halabeharra, kulpa, tragedia... bere obsesio guztiak» presente daudela azaldu zuen. Iazko 'Ikusezin'-en bezala, aurtengo 'Sunset Park'-en protagonistak gazteak dira. Horretan badago diferentziaren bat aurreko eleberrietako protagonista edadetuekin. Gazteak izan arren, ordea, guztiak dute ezbeharren baten zama garraiatu beharra, «bakoitzak badu bere tragedia dositxoa».

Sunset Park Brooklyngo auzo pobreako etxe abandonatu batean okupa legez bizi diren lau gazte dira eleberriko protagonistak, baina horien guztien gaintik 28 urteko Miles Heller nabarmentzen da. Itxuraz ezbeharra atzetik segika daukan familia oneko gizaseme gaztearekin batera helduko da irakurlea Sunset Parkera Florida eguzkitsutik. Hellerren gorabeherek eleberri baterako emango lukete erraz, are gehiago Bing Nathan, Ellen Bruce eta Alice Bergstromenak eta horien guztien artean sortzen diren harremani lotuak gehitzen bazaizkio. Auzo marjinal samarrean bizi arren, ez da hori laukotea osatzen dutenen jatorria. Bizitzea egokitu zaien krisi egoerak -liburu honetan krisialdi ekonomikoa eta horren ondorioak zein presente dauden azpimarratu zuen Inazio Mujika Iraolak aurkezpenean- eta egin dituzten hautuek, haatik, kinka oso larrietan jartzen dituzte askotan, eta bizipen horiek guztiak kontatzen ditu Austerrek, tarteka gogoeta eta digresio luze samarrak tartekatuz. Oskar Aranaren ustez, «kontakizuna bezain garrantzitsua» da oraingo honetan kontatzeko modua. Alde horretatik, «'Ikusezin' baino exigenteagoa» izan daiteke irakurlearentzat plano eta estilo desberdinetan kontatzen den istorioa. Alde ona ere badu haatik estiloaren aldetiko berezitasun horrek: «Liburu freskoa da, 'Brooklyngo erokeriak' bezain freskoa, eta freskotasuna ez dio gaiak ematen, kontatzeko moduak baizik».

Edonola ere, itzultzaileak eta editoreak nabarmendu zuten moduan, «erabat Auster» da Auster eleberri honetan, batzuen gozamenerako eta besteen etsipenerako.

